anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2015eko otsailaren 6a
13. urtea
576. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

Kirola

Espainiako Arku-tiro Txapelketa jokatuko du asteburuan Elisabeth Luengo durangarrak > 15

Elurra mara-mara Durangalde osoan

Elurra izan da asteko protagonista eskualdean. Eguaztenean gogotik bota zuen elurra, eta errepideetan hainbat arazo sortu zituen. Elurra kentzeko makinak eten barik ibili dira bideak garbitzen eta gatza botatzen. Zornotzan, berriz, auzo batzuetan argindar barik egon dira. > 7

Lehior Elorriaga

Alkoholismoak familia giroan duen eraginaz berba egingo du Díez Blanco doktoreak

Al-Anonek, alkoholikoen senitartekoei eta lagunei babesa ematen dien elkarteak, 'Akoholismoak familia giroan duen eragina' berbaldia antolatu du otsailaren 7rako, 18:00etan, Durangoko Nagusien Udal Egoitzan. Hitzaldi horretan, Felipe Díez Blanco familia medikuak parte hartuko du, besteak beste. Díez Blancok azaldu duenez, bertaratzen direnen zalantzak argitzea du helburu hitzaldiak. Díez Blancok dio gizarteak ez duela alkoholismoa gaixotasuntzat hartzen, baina familia asko estigmatizatuta bizi direla gaitz horren erruz. > 10

Durango > 2
Tabirako biribilgunea egiteko obrak adjudikatu ditu Aldundiak

Zornotza > 4
Trenbide ondoko pasabidea eraikitzen hasi da udala

Mallabia > 5
Euriteek kalteak eragin dituzte Osma eta Gerea auzoetan

Iurreta > 8
Askondo kalean karpa bat ipiniko dute inauteriak ospatzeko

Herririk herri

Tabirako biribilgunea egiteko obrak adjudikatu ditu Aldundiak asteon

BI-623 errepidean bide-segurtasuna hobetzea da Bizkaiko Foru Aldundiak obragaz duen helburua

DURANGO Markel Onaindia

Bederatzi hilabeteko obren ostean, gaur egungoa ordezkatuko duen biribilgune bat egongo da Tabiran. Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da BI-623 errepideko tarte horretan bide-segurtasuna hobetzea. Izan ere, bertan azken hamarkadetan gertatutako istripuek kezka eragin izan dute, bai Aldundian, bai Durangoko Udalean. Ia 100 auto istripu jazo dira Tabirako biribilgune eta saihesbidean. Ezbehar horietan hiru lagun hil, eta dozenaka zauritu dira.

BI-623 errepidearen errail nagusitik aparte dago Tabirako biribilgunea, Aldundiak prentsa oharrean zehaztu duenez. Horren eraginez, ezkerretarako biraketak egin behar izaten dira biribilgunean sartu eta irteteko. Autoen abiadura kontuan hartuz gero, istripu bat izateko arrisku handia dago. Obragaz, biribilgunea errepidera batuko dute. "Biribilgunea hobeto egokituko zaio trazatuari, eta, horrela, ezkerretarako biraketak desagertuko dira", azaldu du oharrean. Bi milioi euroko aurrekontua dauka Aldundiaren egitasmoak, eta bederatzi hilabeteko epea ipini dio obra adjudikatu dion enpresari.

Tabiran, BI-623 errepidearen errail nagusiaren alboan dago biribilgunea.

Zirkulazioa bereiztea

Horretaz gainera, Tabirako eta San Rokeko biribilguneen artean errepideko erdibitzaile bat ezarriko dute obra horren bitartez. Horrela, zirkulazioaren bi noranzkoak hobeto bereiztea lortu gura dute, Foru Aldundiko ordezkariek azaldu dutenez.

> Tabirako eta San Rokeko biribilguneen artean errepideko erdibitzaile bat ezarriko dute

"Udalaren pasibotasunaren aurrean, guk gure bideagaz jarraituko dugu"

Hilaren 13rako batzarrera deitu dute 'Baguez gure espazio bile' dinamikakoek

DURANGO M.O.

"Gazteok ez gara zerura begira geratuko". Hori da *Baguez gure espazio bile* dinamikako gazteek prentsa ohar bidez adierazi dutena. Duela hiru hilabete agerraldia egin zuten udaletxe parean, eta gazteek adierazi zuten elkartzeko, sortzeko eta ikasteko espazio baten beharra dutela herrian. Eskaera zehatza egin zuten, gainera: Correosen eraikin zaharra proposatu zuten. Baina ez dute udalaren erantzunik jaso, eta hurrengo pausoen berri eman dute: "Udalaren pasibotasunaren aurrean, gazteok gure bideagaz jarraituko dugu, Durangoko gazte guztiontzako espazio bat lortzera eramango gaituen bideagaz".

Otsailaren 13rako batzar irekira deitu dute dinamikaren sustatzaileek, eta gazte durangar guztiak animatu dituzte bertan parte hartzera. 17:30ean hasiko da batzarra, Pinondo Etxean.

Gazteek agerraldia egin zuten urrian, udaletxe aurrean.

> Eskaera zehatza egin zuten, gainera: Correosen eraikin zaharra proposatu zuten

Hezkuntza digitalaren lehen topaketa egin dute

Digitalizaziorako pausoez hausnartu dute Durangon

DURANGO M.O.

Hezkuntza digitalaren lehenengo topaketa egin zuten atzo, Gran Hotel Durangon, euskal eskola publikoko EHIGE, BIHE eta Sarean elkarteek antolatuta. Gaur egungo errealitatetik digitalizaziorantz eman beharreko pausoen inguruan hausnartu zuten, eta horretarako hainbat tailer antolatu zituzten. Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak ere agerraldia egin zuen topaketan.

Atzo, topaketan, antolatzaileek egindako agerraldia.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2015eko otsailaren 6a, 13. urtea - 576. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde Begoña eta Martxel Zubia Arrinda.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

Generoaren inguruan hausnartzeko plaza izango da Berbertan zikloa

Eguaztenean, Nagore Uriartek Idoia Torregarai elkarrizketatuko du Plateruenean

DURANGO Markel Onaindia

Plateruena kulturgune herritarrak antolatzen duen Berbertan hitzaldi zikloa bueltan da. Politika, kirola, kultura... Hainbat gai jorratu dituzte orain arteko edizioetan, eta aurtengo honetan generoa aukeratu dute. Beraz, genero ikuspuntutik hausnartzeko plaza izango da Berbertan. Ohi bezala, elkarrizketa formatua edukiko dute datozen hiru eguaztenetan 19:00etatik aurrera eta doan garatuko diren berbaldiek.

Datorren eguaztenean emango diote hasiera zikloari. Nagore Uriarte Hamaika telebistako kazetariak Idoia Torregarai elkarrizketatuko du. Torregarai ere kazetaria da, eta *www.barretartia.com* blogaren egilea da. Generoak umorean daukan lekuaz jardungo dute solasean. Hilaren 18an, Estitxu Eizagirre *Argia* astekariko zuzendaria izango da gidari, eta Oihana Etxebarrietak jarraituko dio hariari. Hezkidetzan aditua da Etxebarrieta, eta generoak umeen ipuin eta jolasetan duen eragina aztertuko du. 25ean, generoa eta dantza tradizionala izango dituzte berbagai Izaskun Ellakuriaga Bizkaia Irratiko kazetariak eta Oier Araolaza dantzariak.

Gogoetaren ondorio

Plateruena kulturguneak *Zilarberritzen* izeneko gogoeta garatu zuen iaz, eta ondorioetako bat izan zen emakumeen presentzia areagotu eta generoaren gaia landu behar direla. Erika Uranga kultur arduradunaren esanetan, hori izan da aurtengo gaia aukeratzeko arrazoi nagusia: "Herritarrek eskatutakoari jarraitu diogu". Horretaz gainera, Plateruena antzokiko berezko sorkuntza lanen edo *zilarrezkoen* oinarria partaidetza eta elkarlana direla gogoratu du. Gaiaren aukeraketagaz jarraituta, gaur egun "bolo-bolo" dabilela adierazi du Urangak. Durangaldean dantza tradizionalean sortu izan den zurrunbiloa ere izan da gaia aukeratzeko beste arrazoietako bat.

> Hezkidetzan aditua da Etxebarrieta, eta generoak umeen ipuin eta jolasetan duen eragina aztertuko du

Iaz, Plateruenean, Berbertan zikloko hitzaldi bat.

Larrialdietako erizainaz galdetu du EH Bilduk

Bigarren erizaina jartzea onartu zuen Legebiltzarrak

DURANGO M.O.

Landakoko larrialdietan edo etenbako arreta gunean bigarren erizain bat ipintzeko beharra aitortu zuen Legebiltzarreko Osasun Batzordeak abenduaren 1ean, eta Jaurlaritzari neurri hori hartzeko eskatu zion. EH Bildu, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin irten zen aurrera proposamena, eta gobernuan dagoen EAJk ez zuen babestu. Hilabete bi pasa diren honetan, EH Bilduko Rebeka Uberak neurria praktikara eraman den ala ez galdetu du. Baina erantzuna ez ei da etorriko hemendik pare bat astera arte.

Jaurlaritzari "itxurakeriaz" jokatzea egotzi dio: "Kalitatezko osasun sistema publikoa hitzez defendatzen du, bai, baina ez ekintzen bidez. Gobernuaren ardura da Eusko Legebiltzarrak onartu zuena betetzea, eta Durangoko etenbako arreta gunea beharrezko baliabideekin hornitzea". Bigarren erizaina ipintzea beharginen eskaria ere bada.

Etxebizitzaren inguruko bando faltsuak agertu dira

Gazteentzako hiru neurri hartu direla dio bandoak

DURANGO M.O.

Azken aste bietan etxebizitza politikagaz lotutako bando faltsu batzuk agertu dira Durangoko kaleetan. Udalak gazteei begira hiru neurri hartu dituela azaltzen da bertan. Lehenengo, banketxeen jabetzan dauden etxeak gazteen alokairurako izango direla, eta prezioa ez dela 100 euro baino gehiagokoa izango. Bigarrenik, Durangoko babes ofizialeko zenbait etxe ere gazteen eskura ipiniko direla, eta errenta ez dela 100 eurotik pasako. Eta, hirugarrenik, Etxebizitza Agenda izeneko plana sortuko dela. Horren arabera, herritarren jabetzako etxe hutsak alokairuan ipiniko lirateke, eta udalak bitartekari lana egingo luke jabearen eta gaztearen artean.

> Herritarren jabetzako etxe hutsak alokairuan ipiniko lirateke, eta udalak bitartekari lana egingo luke

80 metro izango dituen pasabidea eraikitzen hasi dira tren geltokian

Trenbidearekiko paralelo joango da pasabidea, eta sei pausagune izango ditu

Lan guztiak datozen lau hilabeteetan amaitzea da asmoa.

ZORNOTZA Joseba Derteano

Zornotzako Udalak Zubizabala auzoko pasabidea eraikitzeko lanei hasiera eman zien orain aste bi. Udalak jakinarazi duenez, egitura horri esker, "oinezkoentzako gune berriak erabilita, hobetu egingo da inguruetako auzoetatik herrigunera heltzeko irisgarritasuna".

Pasabideak 80 metro inguruko luzera izango du, trenbidearekiko paralelo joango da, eta sei pausagune izango ditu. Zubizabalako bizilagunak sarritan kexatu izan dira sasoi bateko arrapala kendu dutelako, eta, hori ordezkatzeko, igogailua eta eskailerak jarri dituztelako. Batez ere, haur-kotxeak zeramatzatenek eta elbarriek erabili behar zuten igogailua, eta kritika nagusiak ziren gauez ez zela martxan egoten eta batzuetan hondatuta egoten zela. Harrezkero, batzarrak izan ditu udalak Zubizabala auzoko ordezkariekin eta, azkenean, eraikitzen dabiltzan pasabidea da udalak eskaini duen irtenbidea.

Pasabideagaz batera, beheko plazaren eta Sabino Arana kalerako irekigune berriaren arteko lotunea ere egokitzen dabiltza. Bost kale-argi egokituko dituzte, eta gune horrek 320 metro karratu inguruko azalera izango du.

Obren aurrekontua 270.000 eurokoa izango da, eta datozen lua hilabeteetan amaitzea da asmoa.

Zubizabalako bizilagunen iritzia. Auzoa herriguneagaz lotzeko pasabide berria irtenbide egokia dela uste duzu?

Andres Blanco

"Lehengo arrapala ez zuten kendu behar. Hogei urte zituen arrapala hark, eta malda handiegia zuela arrazoitu zuten hura kentzeko. Ordezko igogailua sarritan matxuratzen da, eta haur-kotxeekin dabiltzanak, nagusiak... zelan igoko dira? Pasabide berria urrun dago. Igogailua matxuratuta badago edo euria ari badu, gurpildun aulkian dagoenak oso urrun joan beharko du".

Francisco Cruz

"Pasabide berria esandako baldintza guztiekin egiten bada, irtenbide ona dela uste dut. Ikusiko dugu horrela den. Hala ere, lehenengo arrapala kendu eta orain berria egitea alferreko gastua dela uste dut. Igogailua matxuratu egiten da, eta batzuetan mantentze-lanak erabiltzaileen ordutegian egiten dituzte. Gauez eta inor ez dabilenean egin beharko lituzkete".

Rufino Nuñez

"Pasabide berria erakitzea ondo iruditzen zait. Beharbada, esango nuke, bide luzeegia egin beharko dela bertara heltzeko. Edozelan ere, uste dut aurretik zegoen hura ez zutela kendu behar. Malda handiegia ei zuen, baina ez dut uste inor kexatzen zenik horregatik; kendu zutelako kexatu gara. Bestetik, igogailua gauetan erabilgarri ez egotea ez zait ondo iruditzen".

Sistema informatiko batek kontrolatzen ditu sartu-irtenak.

Txandakako sistemadun aparkalekua zabaldu dute Nafarroa Zentroan

Egunero egongo da zabalik 07:00etatik 22:00etara; 25 aparkaleku ditu

ZORNOTZA J.D.

Joan zen barikuan, Nafarroa Zentroaren azpialdeko aparkalekua ireki zuten sistema informatizatuagaz. 25 aparkaleku ditu. Sartzeko edo irteteko ez dago txartela hartu beharrik: sarrerako edo irteerako hesiaren azpialdean dagoen marraren gainean autoa geratu, eta sistema informatiko batek automatikoki irekiko du atea. Sistema berdina darabil Ixerreko aparkalekuak ere.

Ixerreko aparkalekuan bezala, txandakako sistema ezarri dute; hau da, aldiko hiru orduz aparkatu ahal izango da gehienez. Ondoren, ordu bi itxaron beharko da berriro bertan aparkatu ahal izateko. Hori guztia sistema informatikoak kontrolatuko du.

Aparkalekua egunero egongo da zabalik: astelehenetik domekara, 07:00etatik 22:00etara. Gauetan itxi egingo dute, segurtasun neurriengatik.

Kontuan izan beharreko alderdi bat autoaren garaiera da: gehienez 1,8 metroko altuera duten autoak sartu ahalko dira. Aparkalekurako sarreran gehienezko garaiera markatzen duen hesi bat dago.

Oraingoz lehen solairua bakarrik egongo da zabalik. Izan ere, beherengo solairua errekaren mailaren azpitik dago, eta urtean pare bat bider ur-geruza fin batek estaltzen du: "Lehenengo, lehen solairuak zelako harrera duen ikusi gura dugu. Beharrizana ikusten badugu, hausnartu daiteke sasoi batzuetan beheko solairua irekitzea", adierazi du David Latxaga alkateak.

Lan-istripuaren zergatia ikertu dadila eskatu du udalbatzarrak

ZORNOTZA J. Derteano

Orain aste bi langile bat hil zen Boroako industriagunean. Lan-istripu horren "arrazoiak ikertzeko eta egon litezkeen erantzukizunak argitzeko" eskatzen duen mozioa aho batez onartu zuen udalbatzarrak. Gainera, hildako langilearen familiari eta lagunei "elkartasuna" ere adierazi zieten.

Mozioa EH Bilduk sartu zuen. Azken puntuekin alderdi guztiak zeuden ados, baina hitzaurreko zati bategaz ez. Hiru alderdien arteko negoziazioen ostean, hitzaurrea moldatu, eta EH Bilduk, EAJk eta PSEk mozio bateratua onartu zuten. Hitzaurreak jasotzen duenez, besteak beste, "dimentsio handiko arazo sozial baten aurrean gaude", eta horren aurrean arazoaren "sustraira joatea ezinbestekoa da".

Udal langileen eta alkatearen arteko batzarra

ZORNOTZA J.D.

Udaleko langile batzuk joan zen barikuko udalbatzarrean egon ziren. Horietako batek hitza hartu zuen amaieran. Langileak pozik agertu ziren, alkateak batzarrera deitu zuelako langileen ordezkaritza bat aste honetarako. Bertan langileen hitzarmena izan dute berbagai.

David Latxaga alkatearen esanetan, azken legegintzaldian berba asko egin da, baina, bere ustez, "ez da zintzotasunik egon komitearen partetik".

EH Bilduko Urko Lopezek batzar horiek udaleko Langileriaren Batzordearekin tartekatzeko eskatu zuen: "Ez dezagun gaia landu gabe utzi hurrengo legegintzaldirako. Saiatu gaitezen geratzen diren hiru hilabeteetan gaia ahalik gehien onbideratzen".

Euskal Herriko baserrietan ekoitziriko produktuak dastatu eta erosteko hitzordua izan zen otsailaren 3koa.

Bisitari ugari, baina azoka gustura ikusteko aukera sanblasetan

Eguraldia lagun izan zuten martitzen goizean San Blas azokara gerturatu zirenek

ABADIÑO Itsaso Esteban

Hurrengo eguneko elurtzarik barik, eguraldia lagun izan zuten martitzenean San Blas egunaospatzera Abadiñora joan zirenek. Jende ugari gerturatu zen Udalak BBKren babesagaz antolatzen duen abeltzaintza, nekazaritza eta artisautza azoka ikusi, eta baserritarrek landutako sasoiko produktuak dastatu eta erostera. Talogileak eta postuetako langileak lanez lepo ibili ziren eguerdi partean.

Nekazaritza eta abeltzaintza azokaz gainera, San Blas jaietarako Abadiñoko Udalak, gaztetxeak eta txosnaguneak antolaturiko ekitaldiak ere gozatu zituzten parrandazaleek, bertsozaleek zein musikazaleek.

> Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak "oso balorazio positiboa" egin du azokaren gainean

Aurtengoa zelan joan den galdetuta, "balorazioa oso positiboa" dela esan du Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak: "Eguraldiak eutsi egin zion, eta aurreikuspenek txarrenean ipini bagintuzten ere, San Blas egunean, goizean, ez zuen euririk egin. Bisitari ugari hurreratu bazen ere, azoka patxadaz ikusteko aukera izan genuen".

Besteak beste, ortuariak eta frutak, euskal pastela, gazta, sagardoa eta txakolina, eta eskulanak saldu zituzten azokako 88 erakusmahaietan. Gainera, Arbaso elkarteak antolaturiko artisautza azokan kokagune berezia izan zuten Abadiñoko sei artisauk: Tornosolo kalean ipini zituzten euren postuak.

Euskara ikasleek 350 euro jasoko dute gehienez diru-laguntzatan

ABADIÑO I.E.

Euskara ikasten dutenei Abadiñoko Udalak ematen dizkien diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan aldaketa bat egitea onartu zuten joan zen asteko udalbatzarrean. Abadiñoko Independienteak taldeak, Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten araudian aldaketa egitea.

Eskatzaile bakoitzak urtean jaso dezakeen gehienezko diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu zuten: eskatzaile bakoitzak ezingo du urtean 350 euro baino gehiago jaso. Udal gobernuak azaldu zuenez, gero eta jende gehiagok eskatzen du diru-laguntza: urtean ikastaro bat baino gehiagorako diru-laguntza ere eskatu izan dute herritar batzuek.

Udalbatzarrean azpimarratu zutenez, euskararen normaliazazioa bultzatzen jarraitzea eta diru-laguntza modu justuagoan banatzea da helburua. Gobernu taldearen arabera, edozelan ere, praktikan apenas izango du eraginik aldaketak. Izan ere, eskaria egiten dutenen gehiengoak eskola guztietara joan dela frogatzen du, eta matrikularen zenbateko osoa itzultzen dio udalak.

Euriteek kalteak eragin dituzte Osman eta Gerean

Zubitegi baserrirako sarbidea, Osma auzoan.

MALLABIA Jone Guenetxea

Joan zen asteburuko euriteek hainbat arazo sortu zituzten Mallabian. Joan zen zapatu goizean, Zubitegi baserrirako bidean, lur-jausia gertatu zen. Ondorioz, baserrirako sarbidea etenda geratu da. Udal arduradunek azaldu dutenez, lurra jausteaz gainera, bidea ere apurtuta dagoenez, orain konponbiderik egokiena zein izan daitekeen erabaki behar dute. Bien bitartean, behin-behineko sarbidea egokitzeko asmoa dute.

Gerea auzoari dagokionez, joan zen asteko bariku gauean pinu bat errepidera erori zen. Pinua berehala moztu zuten, eta errail batetik bidea eman zuten. Pinuaren sustraiak eta lur multzoa errailaren beste zatia okupatzen dabiltza, baina arazoa laster konpontzea espero dute.

Joan zen barikuko haizeak ere kalteak eragin zituen. Haizearen eraginez ortu ludikoetako teilatua altxatu egin zen. Leiho bat zabalik zegoen, eta haize bolada batek kalte handia eragin zuen teilatuan. Toldoagaz estali zuten, eta eguraldiak hobera egiten duenean konpontzeko asmoa du udalak.

Arbizolean biribilgunea egiteari ezetz esan dio Foru Aldundiak beste behin

Iazko abenduan egindako eskaeraren erantzuna jaso du Izurtzako Udalak

Arbizolea industriagunerako sarrera.

IZURTZA Joseba Derteano

Azken urteotan Izurtzako Udalak, bere alkatearen bitartez, behin baino gehiagotan proposatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari Arbizolea industriagunerako sarreran biribilgune bat eraikitzea ahalbidetuko lukeen erakunde bien arteko akordio bat adostea. Baina orain arte ezezko erantzuna jaso du beti. Iazko abendu amaieran egin zuen orain arteko azken ahalegina, eta urtarrilaren 22an jaso zuen Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailaren ezezko erantzuna, Itziar Garamendi sailburu jeltzalearen sinaduragaz.

> Luis Ballarin alkateak "zigor politikoa" ikusten du Aldundiaren hainbeste ezezkoren atzean

Luis Ballarin alkateak "zigor politikoa" ikusten du hainbeste ezezkoren atzean. Gogoratu duenez, "BI-623 errepidean, Iurreta eta Mañaria arteko tartean, bost biribilgune daude, baina horietako bat ere ez Izurtzan".

Herriguneko abiadura

BI-623 errepideak Izurtza zeharkatzen du. Ibilgailu asko herrigunetik gehiegizko abiaduran igarotzen direla-eta, udalak azken urteetan sarritan eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari arazo horren aurrean neurriak hartu ditzala, baina eskaera horiek ere beti ezezkoa jaso dutela salatu du Ballarin alkateak.

Bizkaiko Aldundiko Errepide Sailak Urkiolako mendatetik igaro daitezkeen ibilgailuen neurria handiagoa izatea baimendu zuen urrian. Horrek zuzenean eragiten dio Izurtzari, Urkiolarako bidean dago eta. Neurria "atzerapauso bat" zela kritikatu zuen orduan Ballarinek: "Urtetan eskatu dugunaren justu kontrakoa ahalbidetzen du; arazoa handitu egingo da".

Bizkaibusen autobus zerbitzua "eskasa" dela dio gobernu taldeak

Autobusak astegunetan maiztasun gutxigaz dabiltzala kritikatu dute, besteak beste

Noranzko bakoitzean, hiru joan-etorri daude egunean, astegunetan.

IZURTZA J.D.

Iazko abenduan Bizkaibusek martxan ipini zuen Izurtza eta Mañaria Bilbogaz –baita Durango eta Iurretagaz ere– lotzen dituen autobus zerbitzua. Hilabete bi joan dira ordutik hona, eta zerbitzuarekiko gobernu taldearen balorazioa ez da ona: "Zerbitzua eskasa da", dio Luis Ballarin alkateak.

Alde batetik, autobus zerbitzua "astegunetan bakarrik" dagoela salatu du; zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. Bestetik, astegunetan Izurtza Bilbogaz lotzen duen linea urria dela dio: "Noranzko bakoitzean egunean hiru autobus bakarrik daude". Mañaritik hiru autobus irteten dira Bilborantz; bi goizetan, 06:40 eta 07:40an, eta bat eguerdian, 14:40an. Bilbo-Mañaria norabidean arratsaldetan dira hiru autobusak: 15:30, 18:30 eta 19:30. Zerbitzu hori ez zaio nahikoa iruditzen gobernu taldeari.

Zerbitzuan beste hutsune bat ere ikusten du. Autopista hartu aurretik, autobusa Iurretara eta Durangora sartzen da. Tarte horretan hiru geraleku daude –bi Durangon, bat Iurretan–, baina denetan ez dute uzten autobusera igotzen edo bertatik jaisten.

Udal gobernua "zerbitzu eskasa" salatzen dabil, eta herriko autobus erabiltzaileei ere dei egin die gobernu taldeak euren kexak Bizkaibusen jakinarazi ditzaten.

Txitxi-burduntzi egingo dute bihar herritarrek

17:00etan elkartuko dira garaitarrak, pilotalekuan

GARAI M.O.

Euskal Herriko hainbat plaza, baserri eta basotan egiten den bezala, txitxi-burduntzi egingo dute asteburuan, Durangaldean. Tradiziozko hitzordu honetan, sua isiotuko dute, eta txorizoak eta bestelako jatekoak prestatuko dituzte herritarrek. Ekitaldi gehienak domekan egingo dituzten arren, Garain bihar egingo dute. 17:00etan elkartuko dira garaitarrak, herriko pilotalekuan.

Trumoitte kultur elkarteak antolatzen du Garaiko txitxi-burduntzi ekitaldia. Sua egiteaz elkartekoak arduratuko dira, eta herritarrek burduntzia eta jatekoa eraman beharko dituzte.

> Sua isiotuko dute, eta txorizoak eta bestelako jatekoak prestatuko dituzte Garaiko herritarrek

Putzu septikoak husteko aukera eskaini dute

Hainbat herritar batu dira putzuak husteko

MAÑARIA Markel Onaindia

Herritar batzuk euren artean antolatu dira putzu septikoen husteaz arduratzeko. Izan ere, Ur Partzuergoak ezarritako prezioak gora egin du aurten, eta bizilagunak elkartuz gero, merkeago irtengo dela uste dute. Iaz arte doan eskaintzen zuten zerbitzua, baina orduan kobratzen hasi ziren. Aurten, prezio publikoak oinarri, putzuen hustuketa bakoitza 220 euro kostako dela erabaki dute, eta, bat baino gehiago egin arren ere, prezioa ez da bajatuko.

Horren ordez, bizilagunak batu egin dira, eta enpresen aurrekontuak begiratu dituzte. Horrela merkeago irtengo dela-eta, interesdunei ekimenean parte hartzea proposatu diete. Mañariko Udalak bitartekari lanak egingo ditu, eta interesa duenak udaletxean eman behar du izena otsailaren 15a baino lehen.

Bestalde, bihar auzolanak egin behar zituzten Arrueta auzoan, baina, egunotako elurtearen ondorioz, atzeratzea erabaki dute.

Salgai daude inauterietako afarira joateko txartelak

Estankoan eta liburu dendan erosi daitezke txartelak

BERRIZ Amaia Ugalde

Inauterietako zapatuan pilotalekua mozorrotutako berriztarrez betetzen da azken urteotan. Aurten ere horrela izango da, eta herri afarirako txartelak salgai daude dagoeneko Etxebarria estankoan eta Ama Lur liburu dendan. 12 euro balio dute 13 urtetik gorakoentzako txartelek, eta 12 urte edo beheragokoek 8 euro ordaindu beharko dute. Otsailaren 10a, martitzena, izango da txartelak erosteko azken eguna.

18:30ean hasiko dute jaia, inauterietako zapatuan. Kalejiran ibili eta gero, kuadrillen topaketa egingo dute Elizondon, eta mozorro lehiaketa egingo dute. Mozorrorik onena duen nagusien kuadrillak 250 euro irabaziko du. Gaztetxoen kategorian, afaria irabaziko du modu originalenagaz jantzita doan kuadrillak, eta norbanako mailan 100 euroko saria egongo da.

Barikuan eskolako jaia egongo da, eta, besteak beste, erromeria izango dute pilotalekuan.

Berrizko udaletxea

Durangoko tren geltokiko sarrera.

Berrizko tren geltokia.

Iurretako plaza.

Elurrak trafiko arazoak eta argindarrean etenak eragin ditu

Zornotzako auzo batzuetan elektrizitate barik egon ziren eguazten eta eguenean

DURANGALDEA J. Guenetxea

Santa Ageda bezperak elurra ekarri du Durangaldera. Eskualdeko bazterretan irudi ederrak ikusi ditugun arren, elurrak nahasmena eragin du, batez ere errepidean. Eguaztenean bertan, A8 autobidean, Zornotza parean, auto ilara luzeak sortu ziren elurtearen eraginez, eta Trabakua, Urkiola, Autzagane eta Kanpazar tarteka itxita egon dira egunotan. Elurra kentzeko makinek gogotik lan egin dute Durangaldeko errepideetan, eta baita auzoetako bideetan ere.

Trafiko arazoez gainera, Zornotzan hainbat orduz argindar barik egon ziren auzo batzuetan, batez ere Larrean. Udalak argindar sorgailuekin etxe batzuetara elektrizitatea eraman ahal izan zuen, baina beste etxebizitza batzuek, Ergoien auzoan, esaterako, pazientziaz hartu behar izan zuten eguna, eta baita gaua ere. Udalak argindar sorgailuak jarri zituen, batez ere etxeak hornitu ahal izateko. Andra Mari ikastolara, berriz, ez zen argindarrik heldu. Aimara Arostegi ikastolako zuzendariak azaldu duenez, eguenean eskolak bertan behera gelditu ziren. "Eguaztenean argindar barik konpondu ginen, sukaldean gasagaz janaria prestatu ahal izan genuelako eta berotasuna mantendu zelako, baina eguenean eskolak bertan behera utzi behar izan genituen.

"2010ean sei bider bajatu zen elurra itsas mailara"

ANDONI AIZPURU

Memoria eginez

Andoni Aizpuru ETBko eguraldi gizona lanez gainezka egon da egunotan. Elorrioko Mendraka auzoan pala eskuetan hartu, eta elurra kentzen ibili da, beste hainbat baserritan egin duten moduan. Gogoratu duenez, Durangaldean azkenengoz orain urte biko otsailean bota zuen golpeko elurra. Azkenengo urte gogorrena, berriz, 2010. urtea izan zela adierazi du. Urte horretan, sei bider bajatu zen elurra itsas mailaraino, elur kopurua aste honetakoa baino txikiagoa izan zen arren. 2005ean ere zortzi elurte bota zituen.

Aizpuruk azaldu duenez, elurte honen ezaugarriak oso bereziak izan dira; izan ere, Bizkaian eta Araban elur asko bota du, eta Gipuzkoa ekialdean eta Nafarroan, berriz, eguzkia zegoen. "Normalean kontrakoa gertatzen da".

Mikeldi ibilbidea egiten hasi dira berriro Bizidunekoak

Elorriotik Mañarirainoko bidea egin dute 31 lagunek

Biziduneko kideak, ibilaldiaren hasieran, Otadui alkateagaz batera.

DURANGALDEA M. Onaindia

Bizidun elkartekoek bigarrenez osatuko dute GR Mikeldi ibilbidea. Iaz egin zuten ibilbide osoa lehenengoz, eta duela aste bi berriro heldu zioten ekimenari: Elorriotik Mañarira bitarteko tartea oinez egin zuten. GR Mikeldi ibilbidea zaintzea eta sustatzea dira Bizidunekoek ekintzarako ezarritako helburuak.

31 lagunek parte hartu zuten lehenengo etapa horretan. Hasieran, San Agustinen, Ana Otadui Elorrioko alkatea ere egon zen eurekin, eta familia argazkia atera zuten guztiek batera.

Zahartzaro aktiboa bultzatzen duen Durangaldeko elkartea da Bizidun. Martxa horietaz gainera, berbaldiak ere antolatzen ditu elkarteak urte osoan, besteak beste.

Ernaik preso eta iheslarien alde konpromisoak hartzeko deia egin du

Ernairen arabera, preso eta iheslariak konponbiderako "ezinbesteko eragile" dira

DURANGALDEA M.O.

Ernai gazte erakundeak deia egin du euskal preso eta iheslarien alde konpromisoak hartzeko. Egindako proposamenen artean daude, adibidez, senideei bidaietan laguntzea, presoak bisitatzea, gutunak idaztea, pinak janztea eta banderolak esekitzea. Preso eta iheslariak gatazkaren konponbiderako "ezinbesteko eragile" direla uste du, eta horien etxeratzea lortzeko "lan handia" egin behar dela ere bai.

"Oztopoak"

Gainera, presoen gaiagaz jarraituta, Ernaiko kideek ohartarazi dute Espainiako eta Frantziako gobernuak "konponbiderako oztopoak" ezartzen dabiltzala. Horregatik, "gazteok ere konponbidearen eraikuntzan pausoak ematea beharrezkoa da", adierazi dute.

Askondo kalean karpa bat ipiniko dute inauteriak ospatzeko

Zapatuko bazkaria karpan egingo dute: 150 pertsonentzako lekua egongo da

Zapatu karnabalean, urtero familia argazkia ateratzen dute bazkalostean

IURRETA Amaia Ugalde

Olaburu pilotalekutik Askondora igaroko dira aurten Iurretako inauterien ospakizunak. Askondon trafikoa noranzko batean moztuta dagoela aprobetxatu, eta karpa ipiniko dute bertan.

Aitte San Migel Jai Batzordeko kideek jakinarazi dutenez, bazkarirako izena eman daiteke, dagoeneko, Ibaiondo eta Gauargi tabernetan. Bazkariak 15 euro balioko du, eta eguena da izena emateko azken eguna.

> Bazkarirako izena eman daiteke, dagoeneko, Ibaiondo eta Gauargi tabernetan

Azken urteotan ehun herritar inguru batu dira inauterietako bazkarian, eta, aurten, karpan gehiago sartuko direla azaldu du Miren Abasolo Jai Batzordeko kideak: "150 bat sartuko garela kalkulatu dugu, eta gehiagok ematen badute izena, ahaleginduko gara lekua egiten". Berogailua eskatu dute dagoeneko. Abasolok gogorazi duenez, nahitaezkoa da mozorrotuta joatea herri bazkarian parte hartzeko. Bazkalostean familia argazkia aterako dute, eta erromeria izango dute Zesuma taldeagaz.

Eguenean, tostada-jana

Inauteriak heldu aurretik, eguen zuri egunerako, tostada-jana antolatu du Jai Batzordeak. Dantzari plazan ipiniko dute otordua arratsaldean.

Martitzen karnabalean, aldiz, umeentzako ikuskizuna egongo da Askondon ipinitako karpan. Disko festa izango dute, eta, kartel batzuetan 18:00etan ageri bada ere, ordu erdi lehenago, 17:30ean, hasiko da saioa.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar

Alicia txaleten herrian

Alicia 30 urteko durangarra da. Orain dela urte bi babes ofizialeko etxebizitza bat tokatu zitzaion zozketa batean. Etxebizitza hori, aldiz, jabetza erregimenekoa zen, eta erostera behartua zegoen, berak alokairua zuen arren lehenetsita Etxebiden egindako eskarian. Baina, bere herrian, hogei urtean babes ofizialeko hogei etxebizitza bakarrik eraiki dira alokairu sistemaren bidez kudeatzeko.

Kutxabankera joan zen. Bertan zituen aurrezki guztiak. Jaio zenean, gurasoek kontu bat zabaldu zioten herriko aurrezki kutxan. Baina bertan ez zioten mailegurik eman, herriko denda batean zeukan behin-behineko kontratua ez omen zelako nahikoa. Ezetza jaso zuzenean, amorruari ezin eutsi, eta zera bota zion langile bati: "30 urtean nire diruarekin etekinak atera dituzue, eta orain ez didazue nire bizitzako proiektu garrantzitsuena finantzatzen. Lapurrak!".

Ezkurdi ondoko taberna batean sartu zen, eta kafe bat eskatu ondoren, egunkaria hartu zuen. Ezin sinetsi bertan irakurritako berria: "Udal gobernuak, Durangon, hamabi txalet eraikitzeko proiektuari bidea erraztu, eta oniritzia emateko prest dago".

2.000 pertsona Etxebiden izena emanda daukan herrian, 1.500 etxebizitza hutsik dauden herrian, babes ofizialeko azken promozioa esleitu ezinean dagoen herrian, Durangon, alegia, hamabi txalet eraikiko dira EAJren legealdi beltz bati bukaera emateko. Burua altxatu, eta etorri zitzaiona bota zuen. Ez zarete makalak!

(Alicia ez dut ezagutzen... edo bai?)

Amaraune elkarteak herriko berbak batu gura ditu herritarrekin

OTXANDIO J. Derteano

Herritar euskaltzalez osatutako sarea den Otxandioko Amaraune elkarteak herriko berbak batzeko ekimena hasiko du otsailean. Azken urteetan jatorri askotako lagunak etorri dira herrira bizitzera, eta konturatu dira etxe batzuetan ohikoak diren berbak arrotzak direla beste batzuetan. Horregatik, herritarren laguntzagaz, herriko berbak batu, sailkatu eta gorde gura dituzte. 100 bat berba dituzte batuta, eta zerrenda ahalik eta luzeena osatzea da helburua. Horretarako hainbat bide irekiko dituzte: esaterako, Interneteko Dropbox fitxategi bat. Martitzenean egingo duten batzarraren ostean jakinaraziko dute ekimena zelan bideratuko duten.

Euskara maila handiagoa egiaztatzea eskatuko dute hainbat udal lanpostutan

Hizkuntza eskakizunak zorroztuko ditu udalak

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Lehenago euskara ezagutza maila jakin bat eskatzen zuten udaleko hainbat lanpostutarako hizkuntza eskakizun handiagoa zehaztuko du Zaldibarko Udalak. Hori erabaki zuen joan zen egueneko udalbatzarrean. Udal gobernuko Bilduren sei ordezkariek eta PPko zinegotziak bozkatu zuten udal lanpostuetarako hizkuntza maila handiagoa eskatzearen alde, eta abstenitu egin zen PSE-EEko zinegotzia. Hiru zinegotzi faltatu ziren egueneko bilkuran: EAJko biak eta PSE-EEko bigarrena ez ziren udalbatzarrean egon.

Udalbatzarrean onartutako aldaketek ez diete egungo langileei eragingo, baina aurrerantzean Zaldibarko Udalak egingo dituen kontratazioetan eta lan-poltsa berrien baldintzetan eragina izango dute. Administrari lanposturako, esaterako, hirugarren maila eskatuko du udalak –orain arte bigarrena eskatu du–. Bestetik, hizkuntza eskakizunik bakoak ziren brigadako hainbat lanpostutarako –iturgin, garbiketako langile, lorezain eta lurperatzaile postuetarako– lehenengo maila eskatuko du udalak. Herriko eskolan jarduten duen brigadako langilearen lanposturako, adibidez, orain arte bezala lehenengo maila beharrean, bigarren maila egiaztatu beharko da.

Domekan ehun urte egingo ditu Emilia Kapelastegik

ATXONDO J.D.

Domekatik aurrera orain mende bat jaio zen bizilagun bat izango du Atxondok. Izan ere, otsailaren 8an 100 urte egingo ditu Emilia Kapelastegik. Atxondoko Martzaa auzoko Olako baserrian jaio zen, baina gaur egun Apatako herrigunean bizi da.

Udaleko ordezkariek adierazi dute Atxondon horrelako urtemugarik aspaldian ez dutela izan. Domekan, Kapelastegik alkatearen eta udal ordezkarien bisita instituzionala jasoko du bere etxean. Herri osoaren izenean zorionak emateaz batera, Atxondoko Udalaren partetik lore sorta bat eta bere urtemuga gogoratzen duen oroigarri bat ere jasoko ditu.

Udaltzainen bulego berria zabaldu dute

Udaltzainen egoitza Buzkantz kalean egongo da

Otadui eta Mujika, bulegoan, udaltzainekin.

ELORRIO Markel Onaindia

Martxan dago Elorrioko udaltzainen bulego edo polizia-etxe berria. Hemendik aurrera Buzkantz kalean eskainiko dute zerbitzua poliziek, udaletxetik metro gutxira. Zazpi udaltzainek egingo dute lan bertan, eta goizeko 06:30etik gaueko 22:00etara egongo da zabalik. Atzo egin zuten prentsari zuzendutako bulegoaren aurkezpena, eta han izan ziren Ana Otadui alkatea eta Joseba Mujika alkateordea.

Orain arte udaletxeko behekoaldean egon dira udaltzainak. Baina leku horretan Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZa) ipintzea erabaki zuen udalak, eta, beraz, udaltzaingoarentzako espazio berri bat behar zuten. Buzkantz kaleko lokala Laboral Kutxa enpresarena da, eta udalari hamar urterako alokatu dio.

Udal arduradunek azaldu dute lokalaren obrak 116.000 euroko kostua eduki duela, hasieran aurreikusitakoa baino %38 gutxiago. Horrela, aurreztutakoaren parte bat altzariak erosteko aprobetxatuko dutela esan dute.

HAZaren lanak

Bestalde, Gizarte Zerbitzuekin lotutako abisua ere zabaldu dute. HAZaren lanek irauten duten bitartean, Gizarte Zerbitzuetako gestioak Buzkantz kalean egin beharko dira, udaltzaingoaren bulego berrian.

Zengotitabengoarentzako baldintza hobeen eske

Udalak gutuna bidaliko dio Kartzela zuzendariari

ELORRIO M.O.

Andoni Zengotitabengoa preso elorriarraren bizi baldintzak hobetzeko eskaera egin du udalak, EAJ eta Bilduren aldeko botoekin –PP ez da batzarrean egon–. Lisboako (Portugal) Monsanto espetxean dago 2010etik. Segurtasun handiko kartzela horretan aparteko baldintza bereziak dauzka. Andreagaz hilean behin dauka kristalik bako bisita, baina alabekin urtean behin bakarrik. Beraz, urtean behin besarkatzen ditu. Ama, ostera, ez du hiru urtean besarkatu, eta gainontzeko senideak inoiz ere ez. Bestalde, egunean 22 ordu ematen ditu bakartuta, ziegan, eta buzo berezi bat izaten du jantzita beti.

Udalaren mozioak dio egoerak sufrimendua dakarrela presoarentzat eta bere senideentzat. "Sufrimendu horrek ez dauka inolako justifikaziorik". Hori dela-eta, udalak gutun bat bidaliko die Monsantoko Kartzelako zuzendariari, Portugalgo Espetxeetako zuzendariari eta Herriaren Defendatzaileari.

Moreno, Herrero eta Ugarriza epaitzen hasi dira

2010eko udalbatzar batean jazotakoen ondorio da

ELORRIO M.O.

2010eko martxoan, inkomunikazioaren eta torturaren kontrako mozio bat eztabaidatu zuten Elorrioko udalbatzarrean, Adur Aristegi elorriarraren atxiloketaren harira. Bertan, PSE-EEko Mari Carmen Muñoz zinegotzi ohiari publikotik "faxista" deitu izana leporatzen diete Josu Herrerori eta Rita Ugarrizari, eta alkate izanda egoera hori saihesteko ezer egin ez izana egozten diote Niko Morenori. Martitzenean hasi zen epaiketa, Bilbon, baina akusazioak 2010eko egun hartako grabazio bat aurkeztu zuen azken orduan. Horregatik, defentsak atzerapena eskatu, eta epaileak onartu egin zuen. Fiskalak urte biko kartzela zigorra eskatu du Morenorentzat, eta lau urtekoa Herrerorentzat zein Ugarrizarentzat, aginteari atentatua egin izana egotzita.

Sortuk elkarretaratzea egin zuen epaitegiaren atarian, *Konponbide garaia da, jazarpen politikorik ez* lelopean.

> DURANGALDEA ASTEON

2,34 milioi etxeko laguntza zerbitzura

DURANGALDEA > Amankomunazgoak 2,34 milioi bideratuko ditu etxeko laguntza zerbitzuetara. Urgatzi enpresagaz egin du kontratua, datozen bi urteetarako, hitzarmena beste urte bira luzatzeko aukeragaz. Laguntza honen helburuak dira nagusien bizi kalitatea hobetzea eta pertsonen autonomiari laguntzea.

Hainbat ikastaro erretzeari uzteko

DURANGALDEA > Amankomunazgoko adikzioen prebentziorako zerbitzuak erretzeari uzteko hainbat ikastaro antolatu ditu. Goizeko eta arratsaldeko txandak egongo dira. Interesatuek Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak Durangon duen egoitzan galdetu, bertara deitu edo e-mail bat bidali beharko dute informazioa lortzeko.

Lapurreta San Faustoko elizan

DURANGO > Durangoko San Fausto auzoko elizan sartu dira bigarren aldiz. Lapurreta larunbatetik iganderako gauean izan zen. Oraingoan telebista bat, DVD irakurgailu bat eta 80 euro inguru eraman dituzte. Zornotzako Andra Maria elizan ere sartu dira, baina ezin izan dute ezer eraman.

Iritzia

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Berbaz

Felipe Díez Blanco | Familia medikua | Bilbo, 1958



“Gizartearen ustez, alkoholikoa ez da gaixoa, pertsona biziotsu bat baino”

Felipe Díez Blanco doktoreak alkoholismoak familia giroan duen eraginaz berba egingo du bihar, Durangon

> BERBAZ Jone Guenetxea

Alkoholismoa arazo bat da sufritzen dutenentzat, baina baita ingurukoentzat ere. Horregatik, Al-Anon alkoholikoen senitarteko eta lagunen elkarteak gai honi buruzko hitzaldia antolatu du biharko, 18:00etan, Durangoko Nagusien Udal Egoitzan. Díez Blanco medikuaz gainera, Alkoholiko Anonimoak elkarteko kideek ere parte hartuko dute.

Alkoholikoen ingurukoek badakite nora jo laguntza eske? Ala galduta aurkitzen dira?

Nire esperientziaren arabera, esan dezaket galduta aurkitzen direla eta denbora askoan sufritzen egon eta gero eskatzen dutela laguntza. Hori alkoholikoaren profilaren araberakoa da. Badaude bizitza *normala* egiten duten alkoholikoak, eta horienak ez du beste profil mota batzuekin zerikusirik. Beste kasu batzuetan, alkoholak guztiz suntsitzen ditu bai alkoholikoa, bai bere ingurua. Hasieran informazio gutxi izaten dute. Baina medikuaren kontsultara joateko aukera dute, eta han emango diote informazio guztia.

Familientzat estigma bat da alkoholiko bat etxean izatea?

Berbaldi bat ematen dudan bakoitzean esaten dudan lehenengo gauza da alkoholismoa gaixotasun bat dela. Medikuntza arloan hori esatea gauza jakina da, baina maila sozialean ez dut uste kontzientzia hori dagoenik. Inkesta bat egingo bagenu, gehienek erantzungo lukete alkoholiko bat ez dela gaixo bat. Alkoholiko bat maltzur eta biziotsu bat dela esango lukete gehienek. Alkoholismoari modu eraginkorragoan aurre egiteko gai honen trataera funtsezkoa dela uste dut; hau da, gizarteak alkoholikoa gaixotzat hartu behar du. Alkoholikoa gaixoa da, asmatikoa den era berean. Gertatzen dena da asmatikoa krisian sartu eta itotzen denean enpatia sortzen duela bere inguruan, eta jendeak lagundu nahi izaten dio. Alkoholikoak, ostera, krisian dagoenean, alde batera uztera bultzatzen du. Zalaparta sortzen dabilen mozkor batek ez du enpatiarik sortzen. Beraz, alkoholikoak estigmatizatuta daude, gaixo mental guztien moduan, sufritzen duenarentzat eta baita familiarentzat ere.

Familiak zelan lagundu dezake?

Alkoholismoa gainditu daiteke, baina adikzio bati buruz hitz egiten gabiltza. Mediku moduan, kasu bakoitzaren ezaugarri bereziak alde batera utzita, niri berdin zait alkohola, kokaina, speeda edo anfetamina den. Adikzio bati buruz hitz egiten gabiltza. Beraz, arazoari heltzeko orduan, filosofia orokorra berdina da. Garrantzitsua da adikzioa duenak arazo bat duela onartzea. Berak ez badu laguntzarik gura, ezin zaio lagundu. Gaixotasun kontzientziatik familiak lagundu dezake. Lau oinarri daude gaixoak aurrera egiteko: alkoholikoak gaixotasuna onartu eta horri aurre egiteko nahia, laguntza afektiboa, Alkoholiko Anonimoak elkartea eta medikuaren babesa.

> *“Sendatzeko garrantzitsuena gaixotasuna duzula onartzea da”*

Osatzeko prozesuan zein jarrera hartu behar du familiak?

Urte askoko esperientziaren ondoren, nire iritziz, familia zorrotza izan behar da. Esan behar duena zera da: “Nik lagunduko dizut, baina nik negoziagarriak ez diren baldintzak jarriko ditut. Eta edaten baduzu, joan egingo naiz”. Arrazoi pertsonalengatik alkoholismoa oso gertutik bizi izan dut, eta atera ditudan ondorioak mediku moduan dakidanagaz eta alkoholiko bategaz izan ditudan bizipenekin osatu ditut. Mozkor etorri da, dena lurrera bota du, eta liskarra sortu du, baina, ohera joan da, eta pasatu egin zaionez, horretaz berba ere ez dugu egingo. Jarrera horregaz arazoa ez da konponduko. Alkoholikoagaz hitz egin behar da edan gabe dagoenean, mozkortuta dagoenean alferrik da. Eta esan behar zaio gaixotasun bat duela eta prest zaudela laguntzeko, baina konpondu gura ez badu, zu joan egingo zarela.

Alkoholikoen profil ugari daude? Emakumeen artean ezkutuan edateko joera dago?

Emakumeek, alkoholagaz arazoak dituztenean, ezkutuan, etxean edaten dute, gizartean txarto ikusita dagoelako. Gizonak, berriz, tabernako barran ikustea ohikoagoa da. Hala ere, profil ugari daude. Alkoholikoa ez da zertan egun osoan mozkor egon. Batzuek bizitza ia *normala* egiten dute, baina dependentzia hori dute. Bestetik, badaude alkoholismo arazo larriak dituztenak, egunero edan ez arren; baina edateari ekiten diotenean ez dago gelditzeko modurik, eta ospitaleratu egin behar dituzu.

Alkoholaren kontsumoa sozializatzeko modu bat da?

Ematen du dibertsioa edateagaz lotuta dagoela gizarte honetan. Ez baduzu edaten, ez duzu gozatzen. Alkoholiko asko gaixotasunera heldu dira edale sozialak izan direlako. Hemen dena konpontzen dugu jaten eta edaten. Badaude poteatzaile kuadrillak sei pote hartzen dituztenak eguerdian eta beste sei iluntzean. Horietatik batzuek ez dute alkoholagaz arazorik izango, baina beste askok alkoholiko izaten amaituko dute. Modu sozial batean hasi dira alkohola edaten, eta dependentzia izaten amaitu dute. Izan ere, alkoholikoa ez da gura duena, ahal duena baino. Pertsona baten osasun egoera genetikaren eta beste hainbat gauzaren araberakoa izan daiteke.

Alkohola neurri barik kontsumitzeak zelan eragin dezake osasunean?

Alkoholismoa gaixotasun suntsitzailea da. Jende gehienak alkohola gibelagaz bakarrik lotzen du. Hala ere, alkoholak organo guztiei eragiten die. Minbizi hepatikoa eta zirrosia sortu ditzake. Era berean, bihotzari eta nerbio sistemari ere eragiten dio. Horregatik, alkoholiko bat artatzen dugunean, organikoki zelan dagoen ere begiratzen dugu.

Zeintzuk dira tratamenduak?

Denetarik dago. Terapia konduktualak lantzen dituzten klinika pribatuetatik hasi, eta tratamendu farmakologikoraino. Nik urte askoren ondoren esango nuke garrantzitsuena alkoholikoa bere arazoaz kontziente izatea dela.

Alkoholiko Anonimoak taldea gomendatzen duzu. Zergatik?

Alkoholiko bat gizartean sentitzen da zuri bat beltzen artean edo beltz bat zurien artean bezala. Alkoholiko Anonimoak taldera doanean, ostera, zuri bat da zurien artean edo beltz bat beltzen artean. Han ez du inor harrituko, ondokoak handiagoa kontatuko diolako.

Kultura

Loli Astoreka | Aktorea | Zornotza, 1958

“Estreinaldian ikusle izan nintzen, eta asko gustatu zitzaidan antzezlana”

Gurutze Beitiaren ordez dihardu ‘De cuerpo presente’ antzezlanean Astorekak; Elorrion du emanaldia, gaur

> ANTZERKIA Itsaso Esteban

Zeure herrian, Zornotzan, eskaini zenuten joan zen barikuan emanaldia. Zer moduz joan zen saioa?
Sentimendu kontrajarri samarrak izan nituen, egia esan. Alde batetik, publikoa nahiko hotz sumatu nuen emanaldian. Baina, bestetik, txalo zaparrada beroa eskaini ziguten amaieran. Ikuslea gozatzen zebilen ala ez igartzea ez zitzaigun oso erraza egin.

Zornotzan antzezteak ilusio berezia eragiten dizu?
Oholtza da nire lantokia, nire fabrika, zelanbait, eta, emanaldia edozein lekutan izanda ere, beti saiatzen naiz ahalik eta ondoen egiten. Beti izan diet oholtza guztiei errespetua, neuk ere gozatu egiten dudalako horietan. Jendeari gure istorioa helaraztea eta iritsi zaiela ikustea da emanaldi guztietan nire helburua.

Ikusle asko biltzen ditu Glu Glu taldeak emanaldietan.
Bai, joan zen barikuan bete egin zen Zornotza Aretoa, palkoa salbu; eta aurretik Durangoko San Agustin kulturgunea ere bai. Jende askok jarraitzen du Glu Glu, jarraitzaile finkoak dauzka antzerki taldeak, eta antzezleok ere badauzkagu gure jarraitzaile finak. Glu Gluren sinadura lan onaren bermea da.

Lehen ere parte hartutakoa zara Glu Glu antzerki taldearen ekoizpenetan.
Bai, urte asko da elkar ezagutzen dugula. Esate baterako, *Ama, quiero ser Lehendakari*, *Cocidito madrileño* eta *Ezker eskuma* antzezlanetan parte hartu dut Glu Glu konpainiagaz.

Kasu honetan, Gurutze Beitia aktorea ordezkatzeko proposamena egin zizun Glu Glu taldeak, ezta?
Bai, eta berezia izan da hori. Ebakuntza baten ostean proposatu zidaten antzezlan honetan parte hartzea, eta oso ondo etorri zait burua beste toki batean ipintzeko. Osasun kontuak ere bideratu dira, eta orain asko nabil disfrutatzen. Gurutze Beitia aktorearen ordezkapena egiten nabil. Kasualitatez, estrenaldian ikusle izan nintzen, eta asko gustatu zitzaidan, gainera, antzezlana.

Durangaldeko antzokietan lanik egin barik denbora luzea eman duzu?
Asko ibilitakoa naiz hemen, baina egia da, Arriolan, esaterako, urte asko dela ez naizela egon. Azkenaldian, Txalo konpainiagaz nabilenez batik bat, Bizkai aldean gutxiago ibili naiz. Txaloren *Hiru* antzezlana, esaterako, Durangaldeari dagokionez, Zornotzan bakarrik eskaini dugu.

Zein da ordezkapenaren planteamendua? Hemendik aurrerako emanaldi guztietan ordezkatuko duzu Beitia?
Emanaldi birako zein hamarrerako izan, antzezlan honetan parte hartu gura nuen, eta zalantzarik egin barik onartu nuen eskaintza. Nire beharrizana badute, prest nago behar beste emanaldi egiteko. Baina, Gurutzek bueltatzeko aukera duenean, berak jarraitzea da justuena.

Antzezlana ikusi duen jendeak zer komentario egin dizue emanaldiaz?
Batzuk hurbildu izan zaizkigu, eta ondo pasatu dutela esan digute. Inpresio positiboa utzi digute. komediarako kontratatzen nautela gehien. Nahiko aktore dramatiko ona naizela uste dut, baina komedian dihardut, batez ere.

Bestela ere, orokorrean, antzerkirako komedia asko ekoizten da azkenaldian, ezta?
Bai; beharbada, barre egiteko beharrizana daukagu. Sarrera bat ordaintzen dute ikusleek, eta, trukean, emanaldiak iraun bitartean eguneroko arazoak ahaztu gura dituzte, eta barruak lasaitu. Ikuslea ni naizenean, esaterako, niri ere gustatzen zait antzerkian zirrara sortu diezadaten, eta hortik nire emozioak atera eta gogoetak egitea. Nire lanagaz norbaiti barrua kitzikatzen badiot, nahikoa lortu dudala uste dut.

Antzezlan honetan, errealitatean seriotasun handiz bizi ditugun egoerak komedia erregistroan ematen dituzue.
Komedia bat da *De cuerpo presente,* komedia-hizkuntza nahasian emandakoa. Beilatoki batean garatzen da istorioa; bihotzekoak jota hil da Bixente nire senar ohia, eta beilatokian elkartzen gara nire koinata, haren semea, azken horren neska-laguna eta neu. Giro horretan sortzen diren egoerak eta kontraesanak kontatzen ditu antzezlanak.

Zer amu baliatuko zenuke jendea Arriolara erakartzeko?
Ez da erraza norbere lanaren inguruan horrela berba egitea, baina, batez ere, esango nieke ausartu daitezela etxetik irtera, eta *De cuerpo presente* ikustera joatera: ez dira damutuko! Zirrara eragingo die. Barre egingo dute, edo gutxienez irribarre, eta gustura ikusiko dute! Askok, gainera, euren burua identifikatuta ikusiko dute, eta tarteka geure buruaz ere barre egitea beharrezkoa da!

Oholtzatik barre eragitea gustuko izan duzu beti?
Bai, gustatzen zait jendeari barre eragitea. Eta, era beran, egia da

Mastretta taldearen gonbidapena musikagaz jolasteko eta gozatzeko

Zornotza Aretoan eskainiko dute saioa Mastretta taldeko lau musikarik, bihar

> MUSIKA Itsaso Esteban

Marina Sorin biolontxelo eta phonobiolin jotzaileak, Luca Frasca pianistak, Coke Santos perkusionistak eta Nacho Mastretta klarinetistak emanaldia eskainiko dute bihar, Zornotzan. Beste dozena erdi kide dituen Madrilgo Mastretta familia musikaleko kideak dira aipaturiko lau musikari horiek.

Arratsaldeko seietan hasiko da kontzertua, eta umeei eta helduei zuzenduriko ikuskizuna eskainiko dute. Musikaren hizkuntza unibertsala du ardatz ikuskizunak, eta hizkuntza hori baliatzera gonbidatzen ditu entzuleak. Jolasaren bitartez, eta Mastretta taldeko musikarien gidaritzagaz, musikaren hainbat oinarri eurenganatuko dituzte entzuleek. Inprobisatu egingo du publikoak ere, eta orkestra zuzendari zein dantzari ere jardungo dira Zornotza Aretora gerturatzen diren ikus-entzuleak. Publikoak ere musikaren emozioa eta gozamena dastatu dezala gura dute Mastrettako musikariek.

Urtarril amaieran aurkeztu du Mastretta taldeak bere azken lana: *El reino de Veriveri* izenburua du diskoak, eta jendearen ekarpenekin, finantzaketa kolektiboaren bitartez lortu dute argiratzea. Duela hamarkada bat Madrilen sorturiko Mastretta taldearen garapena erakusten du diskoak, eta azken asteotan hasi dira diskoko kantak zuzenean eskaintzen.

Urtarril amaieran aurkeztu du Mastretta taldeak azken lana: 'El reino de Veriveri' diskoa.

Zinegoak jaialdiko 10 film ikusgai Durangon

Gaur emango dituzte filmak, San Agustinen

> ZINEMA

Zinegoak Gay-Lesbo-Trans Zinemaren eta Arte Eszenikoen Bilboko Jaialdi Nazioartekora aurkezturiko hamar film emango dituzte gaur, 20:00etan hasita, Durangoko San Agustin kulturgunean. Doako sarrera izango du emanaldiak.

Deflated, *O.V.O.*, *UTÖ*, *Ella*, *Das phallometer*, *Alejandra*, *Tomorrow*, *What's your sign?*, *1 mes y 2 días* eta *Último pase* izenburuko film laburrak eskainiko dituzte Durangoko kulturgunean. Euskal Herrian, Argentinan, Alemanian, AEBetan eta Espainian ekoitziriko filmak dira, hainbat generotakoak: drama, komedia, animazioa zein dokumentala, besteak beste.

Urtarrilaren 25etik otsailaren 2ra arte garatu dute aurten Zinegoak, eta eman dituzte 2015eko sari nagusiak: *Nanting maste ga sönder* lanak jaso du fikziozko film luze onenaren saria, eta *Africa 815* filmak dokumental luze onenarena.

> Urtarrilaren 25etik otsailaren 2ra garatu da aurten Bilboko Zinegoak zinema jaialdia

Film laburretan *Il segreto de la serpente*, *One deep breath*, *Ang Huling Cha-Cha Ni Anita*, *Deti 404* eta *Pepper* filmek jaso dituzte sari nagusiak. Gainera, beste hainbat lani aipamen berezia egin die Zinegoak jaialdiko epaimahaiak.

Mercedes Sosa abeslari latinoamerikarraren bizitza, dokumentalean, Elorrion

Otsailaren 11n emango dute filma, kultur etxean

> ZINEMA

Mercedes Sosa: Latioamerikako ahotsa dokumentala emango dute, datorren eguaztenean, Elorrioko Iturri kultur etxean. Hilean Behin zikloak programatutako emanaldia izango da, eta 19:30ean hasiko da.

Mercedes Sosa musikari argentinarraren bizitzaren pasarteen bitartez haren herrialdearen historia kontatzen du film dokumentalak. Izan ere, ahots eder bat ez ezik, injustizien kontra ausart borrokatu zen emakume bat ere galdu zuten Argentinak, Latinoamerikak eta, oro har, munduak, Mercedes Sosa 2009. urtean hil zenean.

Bere konpromiso politikoa onartzen ez zutenen mehatxuak jaso zituen Sosak, eta 1980ko hamarkadako Argentinako diktadura basatiak erbestean babesa hartzera behartu zuen.

Besteak beste, Mercedes Sosak eskainitako elkarrizketen pasarteak, kontzertuetako irudien zatiak, eta lagun eta lankideen testigantzak bilduta osatu du Rodrigo H. Vila zuzendariak dokumentala.

Bidaia intimoa da film honek ikusleari eskaintzen diona: Mercedes Sosa emakume, artista eta aktibistaren mundura eginiko bidaia. Fabian semeak gidatzen du amaren bizitzara egindako bidaia, eta ama ezagutu zutenen testigantzetan oinarritzen da Mercedes Sosaren erretratua.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea

Hassanna

Lore bat Aaiun erdian, desertuko mugek zapaldua, oasietan baino mapetan islatzen omen delako herri bat. Loreak bezalakoak garelako, hemen jaio denak hemengoa maite du, eta hemengoari zuzenesten dio, eta bizitza bera emango luke berea defendatzeko. Hego haize epelek barreiatzen dituzte loreen petaloak sustraiek markatzen dituzten mugetatik haratago, baina sustraiek lur berari osten diote ura, eta xurgatzen diote gatza, eta lur berean etengabeko larrutaldian bizi dira, harik eta zimeldu eta goiz batean leiak erreta agertzen diren arte; jaio den leku berean ehorzten da lorea, baina bere zatiak hamaika txokotan usteldu daitezke. Hareazko dunetan ale bakoitzak badu bere pisua eta gauetan tenperaturak hozten direnean estatiko bihurtzen dira mendi mugikorrok, ezkutaleku askorentzat eta urik apenas behar duten gameluen gainean dabiltzan turbantedunen azalak zartatzen ditu eguneko beroak, haizeak mugiarazten dituen hondar aleak poroetatik sartzen zaizkien bitartean. 2011n iritsi zen Hassanna gure parajeetara, muga ikusezin bezain boteretsuak igarota, Gibraltargo itsasartea omen da Europa zaharra hegoaldetik babesten duena, zeren aurrean babestu? Besarkada bero batekin muga guztiak urtuko ditugulakoan, Hassanna ere preso politikoa da, eta ea noiz ikus dezakegun bere aldeko manifestazio batean urtarrileko manifestazioetan bezainbesteko jendetza, horixe bera delako internazionalismoa.

EDERTASUN GIDA

Nerea Sarriugarte.

‘Bikini operazioa’ martxan

Oraindik neguan gauden arren, espero duguna baino lehenago iritsiko da udaberria gure artera. Gabonetako otordu handiak atzean utzi, eta gure elikadura zaintzen hasteko momentua da.

Ez al da goizegi ‘bikini operazioa’-n pentsatzeko?
Ez. Gabon garaian pixka bat deskuidatu baldin bagara, orain da momentua martxan jartzeko, azken orduan esperotako emaitzak lortzea zaila izaten delako. Elikadura urte osoan zaindu behar den arren, noski.

Ohikoak al dira azken momentuko mirari dietak?
Bai. Tamalez gero eta sarriago jotzen da horietara, batez ere pisua azkar bajatzeko asmoagaz, kasu gehienetan, azkar jaitsitakoa azkar errekuperatzen den arren.

Nola hasi gaitezke gure elikadura zaintzen?
Lehenik eta behin dietista edo nutrizionista batengana jo, eta norberaren helburua edo nahia zein den azaldu behar zaio. Dietistak nutrizio plan pertsonalizatua ezarriko du, gorputz konposizioa, ezaugarriak, gustuak, ohiturak eta analitika kontuan hartuta. Zatoz Hiru Fisioterapia zentrora, eta nik neuk lagunduko dizut zure elikadura bideratzen eta hobetzen!

ILE APAINDEGIAK

ESTETIKA ZENTROAK

DIETETIKA eta NUTRIZIOA

Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Bost Urban Dance lehiaketarako sailkapen saioa egingo dute bihar, Elorrioko Arriolan

Apirileko Bilboko kale dantzen jaialdirako sailkatuko dira Akadantz lehiaketa irabazten duten bi taldeak

> MUSIKA **Itsaso Esteban**

Sarrera guztiak agortuta daude bihar, Elorrioko Arriolan, izango den Akadantz lehiaketa bertatik bertara jarraitzeko. Izan ere, maila handiko koreografiaz osatutako kale dantzak ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Horretaz gainera, apirilean, Bilbon egingo den Bost Urban Dance Comp lehiaketarako sailkatzeko aukera ere izango dute bihar dantzariek.

> 32 talde lehiatuko dira bihar, Elorrioko Arriola antzokia agertoki izango duen Akadantz jaialdian

Breathlees taldea, iazko Akadantz jaialdian parte hartzen.

Elorrion, bihar, eta Aretxabaletan, martxoaren 7an, jokatuko dituzten saioetan irabazten duten lau taldeek Bost Urban Dance Comp lehiaketaren Bilbo Arenako emanaldian parte hartzeko txartela irabaziko dute. Antolatzaileek esan dutenez, Elorrioko biharko sailkapen saioan 32 taldek hartuko dute parte, eta Aretxabaletan 33k. Epaimahaiak aukeratako lau taldeek, beraz, apirileko Bilboko jaialdi handian, nazioarteko epaimahai baten aurrean, jardutea irabaziko dute.

Adin multzo bitan lehiatuko dira Elorrioko Akadantz lehiaketako parte-hartzaileak: 16 urtetik gorakoen multzoan, taldeka zein bikoteka –*street dance* eta *breakdance* eran, eta estilo esperimentalean–, eta 15 urtetik beherakoen multzoan. Helduen kategorietako irabazleek dirusaria izango dute, eta apirileko Bilboko saiora joateko sarrerak irabaziko dituzte gazteek. Aurreko edizioetan bezala, hiru minutuko iraupena duten koreografiak aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek.

> Aurreko edizioetan bezala, hiru minutuko koreografiak egingo ditu dantzari talde bakoitzak

Euskal Herriko hainbat lekutako, Aragoiko, Kantabriako zein Kataluniako dantzariek eman dute izena biharko saioan parte hartzeko.

Izaki Gardenak taldea eta Inun bakarlaria, Plateruenekoan

Bihar, 22:30ean emango dio hasiera gauari Mikel Inunziaga 'Inun' bakarlariak

Jon Basaguren taldekidearen bakarkako abestiak jotzeko sortu zuten, 2012. urtean, Izaki Gardenak boskotea.

> MUSIKA

Kontzertu bikoitza antolatu dute biharko Durangoko Plateruenean. Jon Basaguren musikariaren bakarkako abestiei forma emateko 2012. urtean sorturiko Izaki Gardenak talde gasteiztarrak eta Mikel Inunziaga *Inun* bakarlari zornotzarrak joko dute 22:30ean.

Jon Basaguren gitarrista eta abeslariagaz batera oholtzan izango dira Libe García de Cortázar teklatuan eta ahotsetan, Eneko Leza baxuan, Eneko Zabalza gitarran eta ahotsetan, eta Iker Fernández baterian. Oihuka diskoetxeak argitaratu zuen taldearen lehenengo lana 2012an: *Itsasargiak* disko laburra. Urtebetera *Amaieratik hasi* disko luzea kaleratu zuen.

> Udaberrian kaleratu zuen 'Berreginez' lehenengo diskoko kantak eskainiko ditu Inun bakarlariak

Mikel Inunziaga *Inun* (Zornotza, 1983) musikariak, berriz, 2014ko udaberrian kaleratu zuen *Berreginez* lehenengo diskoa, eta bertako kantak joko ditu Plateruneko biharko hitzorduan. Lau hilabetean saldu zituen Inunek argitaraturiko lehenengo diskoaren mila aleak, eta beste bostehun kopia atera zituen abenduan.

Yllana konpaniaren azken ekoizpena, San Agustinen

Genero beltzari omenaldia egiten dio Madrilgo Yllana antzerki taldearen ekoizpen berrienak

> ANTZERKIA

Azken urteotan Durangaldeko antzokietan *PaGAGnini*, *Broker* eta *Sensormen* antzezlanak eskaini dituen Madrilgo Yllana taldearen emanaldia izango da etzi, 19:00etan, Durangoko San Agustinen. Yllana taldeak ohi duen bezala, umore erregistroko eta testurik bako obra da *The Gagfather*. Zinema beltzari omenaldia.

Lau antzezlek dihardute obra horretan: Fidel Fernández-ek, Luis Caok, Juan Fran Doradok eta Jony Eliasek. Hirira ailegatu den gangster banda baten ibilerak kontatzen dituzte lau aktore horiek, batetik, eta talde horren jarduna edozein metodo erabilita geldiarazi gura duen polizia taldearenak, bestetik. Zentzubako egoerak sortuko dira talde bien arteko talkan. Horretaz gainera, ongiaren eta gaizkiaren inguruko gogoeta eta kritika ere egingo du Yllanak, betiere umoretik.

Hogeita hiru urte ditu Yllana antzerki taldeak, eta Madrilgo Alfil antzokia ere kudeatzen du azken urteotan.

Umoretik, ongiaren eta gaizkiaren arteko gogoeta egiten du Yllanak.

Kirola

Elisabeth Luengo | Arku-tiralaria | Durango, 1992



“Burua ondo badaukazu, gezia zuzen joango da”

Bizkaiko eta Euskadiko txapelak jantzi ostean, Espainiakoaren bila doa orain Elisabeth Luengo durangarra

> ARKU-TIROA M. Onaindia

Injinerutzako master bat egiten dabil Santanderren (Espainia), eta handik bueltan etorri ostean batu da solasaldira. Maleta desegin arren, berehala egin beharko du berriro, Castellora (Herrialde Katalanak) joateko. Asteburuan Arku-tiroko Espainiako Txapelketa jokatuko du bertan, eta onenen artean geratzea da Elisabeth Luengoren helburua. Euskadiko selekzioagaz parte hartuko du. Prest ditu arkuak eta geziak.

Bizkaiko txapeldun, Euskadiko Ligan irabazle... Bolada onean zaude!

Bai, horrela esan daiteke. Bazen odua! [Barrez]. Bizkaiko Txapelketa abenduan izan zen, eta Euskadikora ezin izan nintzen joan, azterketengatik. Liga hiru egunetan jokatzen da, eta puntu gehien lortzen duenak irabazten du.

Baina aspalditik zabiltza maila onean...

Baina irabazten ez. Beti egin izan dut bigarren-edo. Ikasketak direla-eta txapelketa batzuetan ezin izan naiz egon, eta horrek ez du laguntzen.

Eta orain, asteburuan, Espainiako Txapelketan parte hartuko duzu.

Helburua lortu dut. Behintzat, joan egingo naiz, eta gero gerokoak. Ea lehenengo bosten artean geratzen naizen. Asko esatea da, baina... Lehenengo egun bietan bakarka ibiliko gara, eta azkenekoan taldeka, Euskadiko selekzioagaz. Hiru taldekide izango gara; bakoitzak gezi bi botako ditu, eta guztion jaurtiketak egiteko minutu bi edukiko ditugu. Azkartasuna baloratzen da. Bakarkakoa bestelakoa izaten da, hiru gezi botatzeko hiru minutu izaten dituzu eta.

Lehiaz gainera, esperientzia gisa ere interesgarria izango da, ezta?

Selekzioaren ekipazioagaz joateak motibatzen nau. Kuriositatea ere badaukat, adibidez, besteak zelan prestatzen diren jakiteko. Jendea ezagutu, elkarrekin egon... Hori ere polita izango da.

> *“Ea lehenengo bosten artean geratzen naizen. Asko esatea da, baina...”*

> *“Zure marka hobetu, gero eta hobeto bota... Norbere lana da”*

7 urtegaz hasi zinen kirol honetan. Zerk eraginda?

Durangoko taldekoek lehiaketa bat antolatzen zuten lehenago, Jai Alain. Babesleak behar zituzten, eta nire amaren ile apaindegira etorri ziren. Gero, laguntzeagatik eskertza lez, hilabeteko bonu bat erregalatu ziguten, probatzeko. “Ama, egin gura dut!”, esaten nion behin eta berriz, eta horrela hasi nintzen.

Eta arku-tiroak zer dauka geroztik kateatuta edukitzeko?

Ez duzu beste baten kontra lehiatzen. Zure marka hobetu, gero eta hobeto bota... Norbere lana da. Gainera, lasaitasuna ematen dizu, eta kontzentrazio gaitasuna garatzen duzu. Asko ikasten da arlo psikologiko horretan. Noski, indarra eta teknika beti landu behar dituzu. Baina burua ondo badaukazu, gezia zuzen joango da. Bestalde, ikasketetarako ere asko laguntzen du, edozein lekutan lortzen duzu kontzentrazioa.

Eta punteria, berezkoa edo ikasitakoa da?

Bietatik esango nuke. Karabinetan-edo ibiliz gero, lagunek esaten didate nik abantaila daukadala [barrez], eta alde batetik, beharbada, horrela izan daiteke. Baina teknika badaukazu, punteriak ez dauka hainbesteko garrantzirik.

Zergatik diozu hori?

Guk ez dugu punteria lantzen, teknika baizik. Pausoak beti berdin egitea da teknika. Gorputzaren keinua, besoa eta burua non ipini... Entrenamenduetan asko lantzen dugu hori, behin eta berriro errepikatzen dugu. Azken finean, arkua fisika da. Beti indar eta jarrera berberak ipini behar dituzu, nahiz eta gauza batzuk ezin dituzun kontrolatu. Kontua da zuk berdin-berdin egon behar duzula, eta hori oso zaila da, noski.

> *“Arkua fisika da. Beti indar eta jarrrera berberak ipini behar dituzu”*

Indarra ere beharko da, ezta?

Bai. Baina besoekin baino, bizkarragaz egiten duzu indarra.

Eta entrenamenduak zelakoak izaten dira?

Lehenengo beroketa egiten da, eta, gero, teknika lantzen dugu. Denboraldiaren hasieran fisikoa lantzen dugu batez ere, pisuekin, gomekin, flexioak egiten... Gero dianara jaurtitzen hasten gara.

Zenbat lagun zabiltzate Durangoko taldean?

Taldean 20 bat gabiltza, adin guztietako jendea da, gainera. Umeak, helduak eta jubilatzeko daudenak ere bai! Lastima da egun bat bakarrik edukitzea entrenatzeko, zapatua, eta ordu bi edukitzen ditugu. Batzuetan gimnasiora joaten gara, baina arkuagaz entrenatzeko egun bat gehiago beharrezkoa litzateke guretzat.

Intxaurrondon entrenatzen duzue, eskola zaharretan. Beste leku bat nahiko zenukete?

Bai. Ez dugu asko eskatzen. Hemezortzi metro karratuko leku itxi bat. Orain, aterpe barik gaude, euria zein elurra egin.

> *“Lastima da egun bat bakarrik edukitzea entrenatzeko”*

Amorebietak “justizia” eskatu du Flavian Ilici kadetearen kasuan

Jokalariaren fitxaren tramitazioa FIFAn dago, eta klubak elkartasuna adierazi dio

Amorebieta eta Leioa futbol taldeetako jokalariak joan zen zapatuan, Larrean, jokatu zuten partiduan.

> HERRI KROSA J. Derteano

Amorebieta futbol klubean dabilen 14 urteko Flavian Ilicik ezin du partidu ofizialik jokatu. Bizkaiko federazioan hasi, eta FIFAraino heldu da bere fitxaren tramitazio eskaera, eta azken horrek oraindik ez dio baiezkorik eman Amorebietari. Bitartean, kluba kasua gertutik jarraitzen dabil, eta Flaviani elkartasuna adierazten diote aukera duten bakoitzean. Joan zen asteburuan, Amorebietak eta Leioak elkarren kontra jokatu zuten partiduan talde bietako jokalariak pankarta bategaz zelairatu ziren: *Justizia Flavi eta Gustavorentzat*. Gustavo Leioa taldeko jokalari bat da, eta horrek ere jokatzeko arazoak ditu.

Flavian Ilici *Flavi*k 14 urte ditu, eta Errumanian jaio zen; hango herritartasuna du, eta, gaur egun, Arratian bizi da. 4 urte zituela etorri zen Euskal Herrira, gurasoek lana aurkitu zutelako hemen. Aurten Amorebietako kadeteen taldean dabil.

Amorebietak Bizkaiko federazioari bidali zizkion Iliciren datuak, fitxa egiteko; Bizkaikoak Euskadikora bideratu zuen kasua; Euskadikoak Espainiako federaziora, eta horrek FIFAra. FIFAk bere legedia aplikatu du. Nazioarteko futbol jokalari adingabeen fitxaketak mugatzen dituen FIFAren legediko 19. artikuluak honako hau dio: “Nazioarteko transferentziak jokalariak 18 urte egiten dituenean bakarrik baimentzen dira”. Baina puntu horrek salbuespenak ditu; mota horretako transferentziak baimentzen dira “jokalariaren gurasoek euren bizilekua klubak egoitza duen herrialdera aldatu badute, beti ere, futbolagaz zerikusirik ez duten arrazoiengatik”. Hori da Iliciren kasua: gurasoak lan kontuengatik etorri ziren Euskal Herrira.

Hori da FIFAri helarazi diotena; baina Espainiako federazioa dabil bitartekari lanetan, eta ez kluba. Joseba Arana Amorebieta klubeko harrobiko arduradunak adierazi du kezkatuta daudela, ez dutelako aurrerapusorik ikusten: “Nik neuk deitu dut dozena erdi bider Espainiako federaziora. Erantzuna beti bera izan da: dena ondo dagoela eta FIFAren baiezkoa jasotzea falta dela. Itxaron egin behar dugula. Gu prest gaude edozertan laguntzeko”. Gainera, Espainiako federazioak “iragazki funtzioa” izan beharko lukeela uste du: “Bestela, zertarako dago? Zuzenean FIFAra joango ginateke”.

ADITUAREN TXOKOA

Juan Carlos Perez

Areto futbola

Monitore ikastaroa

Azken urteetan Euskadiko eta Bizkaiko federazioek maila eskakizunak handitu egin dituzte, entrenatzaileei dagokienez. Logikoa da, helburua Euskadiko areto futbolaren maila hobetzea bada. Maila Gorenean eta Euskal Ligan gutxieneko monitore titulua behar da. Iaz arte, entrenatzaileen 1. maila exigitzen zen maila horietan.

Tituludunak falta dira, eta klubei kostua suposatzen die. Horrek eraginda, azken urteetan Euskal Liga eta Hirugarren Maila hankamotz daude hamahiruna taldegaz (hamabi Hirugarren Mailan, oraintsu Ermua taldea desagertu ostean). Orain urte gutxi, Durangaldean Abadiñoko Lagun ere desagertu egin zen.

Klubetako ordezkariek entrenatzaile ikastaroak antolatzea izan daiteke irtenbide bat, baina, kostu ekonomikoaz gainera, denbora da oztopo nagusia, eskolek eta joan-etorriek hartzen duten denbora. Aurten, Euskadiko federazioak Euskal Ligarako eskakizun maila monitore titulura jaitsi du, eta erabaki zuzena izan da; Entrenatzaile Eskolak, bestalde, monitore ikastaroak eskaini ditu Gabonetan, eta bete-betean asmatu du. 20 lagun ibili gara ikastaro horietan.

Hala ere, Durangaldeko hiru lagun bakarrik egon gara aipatutako ikastaroan. Izan ere, Sestaorainoko joan-etorriak egin behar ziren. Beharbada, horrelako ikastaroak Bizkaiko eskualde gehiagotara gerturatzea aurrerapauso bat izango litzateke. Esaterako, Durangon antolatuz gero, seguru nago eskualdeko jende dezentek parte hartuko lukeela.

** Erredakzioan itzulia*

Iraia Garcia, beste behin, kros laburrean onena

Laugarrenez irabazi du Euskadiko Txapelketa

Iraia Garcia, podiumaren erdian, txapelagaz. Durangalde Running

>KROSA

Joan zen asteburuan, Iraia Garcia zornotzarrak (Santutxu AT) laugarrenez irabazi zuen Kros Laburreko Euskadiko Txapelketa (4 km), Azpeitian. Gizonetan, Durangalde Running taldeko Dabid Garcia durangarra hirugarren sailkatu zen.

Emakumeetan borroka polita izan zuten Majida Maayouf korrikalariak eta Iraia Garciak. Azken itzuliko aldapan Garciak ihes egin zion Maayoufi, baina beheranzkoan aurrea hartu zion marokoarrak. Azken metroetan, Maayouf harrapatu eta gainditzekotan zela, erori egin zen zornotzarra, eta horregatik ez zuen lasterketa irabazi.

Otsailaren 15ean, Elgoibarren jokatuko den Kros Luzeko Euskadiko Txapelketan podiuma izango du helburu.

Gorritxategi eta Ozaeta onenak herri krosean

> KORRIKA

Hotzari, elurrari eta txingorrari aurre egin zioten joan zen domekan, eta herri kros arrakastatsua antolatu zuen MugarraTTk Durangoko kaleetan. Guztira, 400 korrikalarik parte hartu zuten hamar edo bost kilometroko lasterketetan. Gizonetan Durango Kirol Klubeko Julen Ozaetak irabazi zuen lasterketa luzea, Aitor Mimenza eta Peio Osororen aurretik. Emakumeetan Eider Gorritxategi nagusitu zen.

Lasterketa laburrean, ostera, Urko Herran eta Garazi Sampedro atxondarra izan ziren onenak.

PLATERUENA

PLATERUENA OTSAILA

2015 EGITARAUA

www.plateruena.net

07 ZAPATUA — HAURRENTZAKO ANTZERKILABORATEGIA

PIANOA NAIZ KINESARTEk aurkeztuta

10:15 - 10:45 0-3 urte / 11:15-11:45 4-7 urte. 20 lagun gehienez.
Hirueleduna eta gestuala.
Sarrera: 5€

07 ZAPATUA — MUSIKA KONTZERTUAK

IZAKI GARDENAK INUN

22:30etan. Sarrera: 6/8€

08 DOMEKA — TXITXIBURDUNTZI

TXITXIBURDUNTZI

13:00etatik aurrera ailasko erretzea
16:00etan IRRIEN LAGUNEKIN KANTU ETA DANTZA
DOAN

09 ASTELEHENA — HAURRENTZAKO EKIMENA

OLGETAN
Ekintza: ANTZERKIA

17:00etan. DOAN

11 EGUAZTENA — BERBERTAN

GENEROAZ BERBE(R)TAN / Generoa umorean
NAGORE URIARTEk (Hamaika TBko kazetaria)
IDOIA TORREGARAI (Kazetaria eta Barretartia blogaren egilea)
19:00etan.. DOAN

14 ZAPATUA — HAURRENTZAKO ANTZERKILABORATEGIA

PIANOA NAIZ KINESARTEk aurkeztuta

10:15 - 10:45 0-3 urte / 11:15-11:45 4-7 urte. 20 lagun gehienez.
Hirueleduna eta gestuala.
Sarrera: 5€

15 DOMEKA — ERROMERIA

AIKO ERROMERIA

18:00etan. Sarrera DOAN

16 ASTELEHENA — HAURRENTZAKO EKIMENA

OLGETAN
Ekintza: EUSKAL MITOLOGIA

17:00etan. DOAN

18 EGUAZTENA — BERBERTAN

GENEROAZ BERBE(R)TAN / Generoa haurren ipuin eta jostailuetan
ESTITXU EIZAGIRREk (Argiako zuzendaria)
OIHANA ETXEBARRIETA (Hezkidetzan aditua)
19:00etan.. DOAN

19 EGUENA — LEHIAKETA INGELESEZ

ROB´S PUB QUIZ

Gehienez 4 lagunez osaturiko taldeak. Ingeles hiztun bat taldeko.
Sariak: eguneko menuak, ekitaldietarako sarrerak...
21:30etan. Sarrera: 0,50€ (botie moduan erabiliko da)

20 BARIKUA — DOKUMENTALA

JOSTUNAK (Gure Esku dago)

20:30etan. Sarrera DOAN

21 ZAPATUA — HAURRENTZAKO ANTZERKILABORATEGIA

PIANOA NAIZ KINESARTEk aurkeztuta

10:15 - 10:45 0-3 urte / 11:15-11:45 4-7 urte. 20 lagun gehienez.
Hirueleduna eta gestuala.
Sarrera: 5€

21 ZAPATUA — MUSIKA KONTZERTUAK

MIKEL URDANGARIN

22:30etan. Sarrera 10€

23 ASTELEHENA — HAURRENTZAKO EKIMENA

OLGETAN
Ekintza: MUSIKA

17:00etatik aurrera. DOAN

25 EGUAZTENA — BERBERTAN

GENEROAZ BERBE(R)TAN / Generoa dantza tradizionalean
IZASKUN ELLAKURIAGAk (Bizkaia Irratiko kazetaria)
OIER ARAOLAZA (Dantzaria)
19:00etan.. DOAN

27 BARIKUA — MUSIKA KONTZERTUAK

DURANG(H)OTS JAM SESSION

21:30etan. Sarrera: DOAN

28 ZAPATUA — KANTUZALEEN TXOKOA

KANTULAGUN KALEZ-KALE

13:00etan. Santa Anako elizpetik hasita.

MARTXOAN DATOZENAK: ZILAR ASTEA, EUSKAL ASSAULT, MURSEGO ETA PETTI, KANTULAGUN, OLGETAN...

Euskadiko piloturik onenek bihar jasoko dituzte garaikurrak San Agustin kulturgunean

Durangalde Racing elkarteko 21 pilotu eta Mendiola Racing taldeko bat daude sarituen artean

Durangalde Racing taldeko pilotuek 21 sari jasoko dituzte. Durangalde Racing

ESKUALDEKO SARITUAK

Formula Librea, pilotuak:
1. Unai Solaguren (Atxondo)
2. Jon Zaioetxebarria (Zornotza)

Rallysprinta, pilotuak:
2. Iban Tarsicio (Abadiño)

Rallysprint, kopilotua:
2. Iñigo Peña (Atxondo)

Mendia, turismo-pilotua:
3. Jose Ignacio Erdoiza 'Lebeiti' (Iurreta)

Mendia, historikoak:
1. Rafa Diaz (Durango)

Slalom, pilotuak:
2. Asier Tejado (Dimakoa, Mallabian bizi da)

> SARI BANAKETA J. Derteano

Euskadiko Automobilismo Federazioaren barruko txapelketetan iaz nabarmendu ziren pilotu eta kopilotuek bihar, 18:30ean, jasoko dituzte garaikurrak, San Agustin kulturgunean egingo den sari banaketan.

Guztira, sei modalitatetako 71 garaikur banatuko dituzte. Garaikur horietatik 21 Durangalde Racing automobil-taldean dabiltzan pilotuek jasoko dituzte. Gainera, euretako asko Durangaldekoak dira; Iban Tarsicio pilotuak eta Iñigo Peña kopilotuak, orain urte bi legez, bigarren amaitu dute rallysprint denboraldia. Formula Libreko garaikur biek Durangaldeko zigilua daramate: Unai Solaguren atxondarra izan da irabazlea, eta Jon Zaioetxebarria zornotzarra geratu da bigarren.

Lebeiti iurretarrak mendiko turismo kategorian hirugarren postuari dagokion saria jasoko du. Slalom modalitateko lehen hirurak Durangalde Racingen dabiltza: Victor Calvo, Asier Tejado eta Raul Perez. Calvok eta Tejadok puntu kopuru beragaz amaitu zuten txapelketa, baina Calvo izan da txapelduna, prestazio gutxiagoko autoagaz lehiatu zelako.

Abadiñoko Mendiola Racing taldeko Rafa Ruiz ere igoko da oholtzara, mendiko historikoen kategorian lehenengo izan delako.

Bizkaiko sari banaketa

Euskadiko sari banaketaren ostean, Bizkaikoaren txanda izango da. Bizkaiko federazioak jakinarazi dunez, otsailaren 21ean banatuko ditu sariak, Gernikan.

Zornotzako futbol talde biak onenak Bigarren Erregionalean

> FUTBOLA

Futboleko Bigarren Erregionaleko bigarren multzoan Zornotzako talde biak daude sailkapeneko lehen tokietan. Zorrontzako lider sendoa da, eta denboraldi osoan partidu bakarra galdu du. Amorebieta B bigarren tokian dago.

Maila honetan ez dago Zorrontzakoren erritmoari eusteko kapaz den inor. Hamaika puntuko aldea ateratzen dio Amorebieta B bigarren sailkatuari. Orain arteko 17 partiduetan hiru puntuk bakarrik ihes egin diote. Denboraldiko porrot bakarra etxean jasan zuen, Iraultza taldearen aurka: 0-1. Etxetik kanpora orain arte orbanik gabeko denboraldia darama: jokatutako zortzi neurketak irabazi ditu.

Amorebieta Bk batez ere etxean batu ditu puntuak: zazpi garaipen eta berdinketa bi. Etxetik kanpora ere sendo dabil: lau lehia irabazi ditu.

Antxia eta Gonzalez sasoian heldu dira gaurko finalera

Trinkete txapelketako finala jokatuko dute

Finalerdi oso ona jokatu zuen Ander Antxiak.

> TRINKETEA

Gaur, 18:30ean, San Blas Trinkete Txapelketako finalak jokatuko dituzte Tornosolon. Elite mailan, Bizkaiko eta Ipar Euskal Herriko bikote bana egongo dira aurrez aurre: Mikel Gonzalezek eta Ander Antxiak Philippe Bielle eta Bixente Lazkano izango dituzte kontrario.

Gonzalez berriztarrak eta Antxia abadiñarrak 40-30 kanporatu zituzten Inchauspe eta Harismendy, finalerdietan. Azken txanpara arte oso partidu lehiatua jokatu zuten (27-30). Durangaldeko bikotea atzetik zihoala, Gonzalez taulapetik atera eta pilota astintzen hasi zenean irauli zuten partidua. Lehen laurdenean izan ezik, Antxiak ere oso seguru jokatu zuen.

Lehen mailako finala

Elitekoaren aurretik lehen mailako finala jokatuko da. Aitor Arabiourrutia eta Asier Aspuru abadiñarrek Gandiaga eta Zabalza izango dituzte aurkari.

Tabirako Baqué taldeko mutilak eta junior mailako neskak bikain

> SASKIBALOIA

Tabirako saskibaloi klubeko hainbat talde maila handian dabiltza. Esaterako, mutilen Lehen Erregional Berezian, Tabirako Baqué lider sendoa da. Orain arteko hamabost partiduetatik hamahiru irabazi ditu, eta batzuetan erakustaldiak emanda; adibidez, Getxori 63 puntuko aldeagaz irabazi zion. Tabirako Baqué menderatzeko kapaz izan den bi taldeetako batek bisitatuko du Landako asteburu honetan: Paules Astrabudua taldeak. Zapatuan, 16:45ean jokatuko dute partidu hori. Lehen itzulian 70-59 galdu zuen Durangoko taldeak.

Tabirako Baqué nesken junior taldea ere A1 mailako lider dago, joan zen asteburuan Bera Bera 58-40 menderatu ostean. Durangarrek partidua kontrolpean izan zuten une oro, eta 28 puntura arteko aldeak izan zituzten. A2 mailako liderra ere Tabirako Baqué da.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Getxo
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Elorrio - Apurtuarte
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Galea
Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA

Ezkurdi - Gernika
Zapatuan, 18:30ean, Arripausuetan.

Berriz - Urbieta
Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Amorebieta B - La Merced
Domekan, 18:15ean, Txolonen.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Durangoko Bikainak - Arratia B
Domekan, 16:00etan, Arripausuetan.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Tolosala
Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

EUSKAL LIGA

Presion Break - Eskoriatza
Zapatuan, 16:45ean, Berrizen.

Elorrioko Buskantza B - Eraso Aiara
Zapatuan, 18:00etan, Elorrion.

Sapuberri - Gora Bilbao
Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA

Presion Break B - Pozgarri
Domekan, 10:45ean, Berrizburu.

Abadiñoko Gaztetxie - Elorrixo Txiki
Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienan.

BIGARREN ERREGIONALA

Racing Tolosto - Zurbaran
Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

Elorrioko Buskantza C - Mendibeltz
Zapatuan, 16:00etan, Elorrion.

> SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako-Baqué - Goierri
Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako-Baqué - Leioa
Domekan, 12:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako-Baque - Astrabudua
Zapatuan, 16:45ean, Landakon.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Zornotza - Bakuva
Zapatuan, 18:00etan, Ixerbekoan.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Zornotza - Jesuitinas
Domekan, 10:00etan, Ixerbekoan.

> ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

DURANGO R.T. - EIBAR R.T.
Zapatuan, 16:30ean, Arripausuetan.

JATETXE GIDA

ÑAM!

PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!

LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua,
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurangо.com

ÑAM!

MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)

JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

ÑAM!

PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!

IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
www.ibarra-sagardotegi.com
Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.

IBARRA
SAGARDOTEGIA

Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi pertsonarentzako menua zozkatuko dugu

Nola deitzen da asteburuan Espainiako Arku-tiro Txapelketa jokatuko duen durangarra?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE ON!

Inmobiliariak

AMBOTO INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

- BERRIZ: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua. Berria estreinatzeko. Jantzi gabe.
- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550 hileko.

